**- PSE/EE TALDEAK 17. GAIARI AURKEZTUTAKO 2. ZUZENKETAREN BOZKETA / VOTACIÓN DE LA ENMIENDA Nº 2 PRESENTADA POR EL GRUPO PSE/EE AL ASUNTO Nº 17**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK:19-(7) PSE-EE,(6)PP,(6) EAJ/PNV**
**AURKAKO BOTOAK: 8-BILDU**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 19-(7) PSE-EE,(6)PP,(6) EAJ/PNV**
**VOTOS EN CONTRA: 8-BILDU**

**- PSE/EE TALDEAK 17. GAIARI AURKEZTUTAKO 3. ZUZENKETAREN BOZKETA / VOTACIÓN DE LA ENMIENDA Nº 3 PRESENTADA POR EL GRUPO PSE/EE AL ASUNTO Nº 17**

| | |
|---|---|
| BOZKETAREN EMAITZA:<br>ONARTUA<br>AHO BATEZ. | RESULTADO DE LA VOTACIÓN:<br>APROBADA.<br>UNANIMIDAD. |

**- PSE/EE TALDEAK 17. GAIARI AURKEZTUTAKO 4. ZUZENKETAREN BOZKETA / VOTACIÓN DE LA ENMIENDA Nº 4 PRESENTADA POR EL GRUPO PSE/EE AL ASUNTO Nº 17**

| | |
|---|---|
| BOZKETAREN EMAITZA:<br>ONARTUA<br>AHO BATEZ. | RESULTADO DE LA VOTACIÓN:<br>APROBADA.<br>UNANIMIDAD. |

**-DIKTAMINAREN BOZKETA PUNTUKA / VOTACIÓN DEL DICTAMEN POR PUNTOS.**

**- 1. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO Nº 1**

| | |
|---|---|
| BOZKETAREN EMAITZA:<br>ONARTUA<br>AHO BATEZ. | RESULTADO DE LA VOTACIÓN:<br>APROBADA.<br>UNANIMIDAD. |

**- 2. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO Nº 2**

| | |
|---|---|
| BOZKETAREN EMAITZA:<br>ONARTUA.<br>GEHIENGOA.<br>ALDEKO BOTOAK:18-(7) PSE-EE,(5)PP,(6) EAJ/PNV<br>AURKAKO BOTOAK: 8-BILDU | RESULTADO DE LA VOTACIÓN:<br>APROBADA<br>MAYORÍA.<br>VOTOS A FAVOR: 18-(7) PSE-EE,(5)PP,(6) EAJ/PNV<br>VOTOS EN CONTRA: 8-BILDU |

**- 3. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO Nº 3**

| | |
|---|---|
| BOZKETAREN EMAITZA:<br>ONARTUA<br>AHO BATEZ. | RESULTADO DE LA VOTACIÓN:<br>APROBADA.<br>UNANIMIDAD. |

**- 4. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO Nº 4**

| | |
|---|---|
| BOZKETAREN EMAITZA:<br>ONARTUA<br>AHO BATEZ. | RESULTADO DE LA VOTACIÓN:<br>APROBADA.<br>UNANIMIDAD. |

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

**HARTUTAKO ERABAKIAREN BEHIN BETIKO TESTUAREN EGIAZTAGIRIA:**

Donostiako Udalbatzak, bi mila eta hamabosteko martxoaren hiruan egin zuen Ohiko Bilkuran, **EAJ/PNV taldeak Trenbidea Frantziako Nazioarteko zabalerako sarearekin lotzea dela eta aurkeztutako Ohiko Mozio hau** onartu zuela, **PSE-EE taldeak** aurkeztutako eta Udalbatzak onartutako **zuzenketekin, ebazpen zatiko 2. 3. eta 4. puntuak aldatuaz.** Testua honela idatzita geratu da:

**CERTIFICADO DEL TEXTO DEFINITIVO DEL ACUERDO ADOPTADO :**

Que el Excelentísimo Ayuntamiento Pleno en Sesión Ordinaria celebrada el día tres de marzo de dos mil quince, aprobó la siguiente **Moción Ordinaria presentada por el Grupo EAJ/PNV relativa a la conexión ferroviaria en ancho internacional con la red francesa, que incorpora las enmiendas** aprobadas, presentadas por el **Grupo PSE-EE, de modificación del 2º, 3.er y 4º puntos de la parte dispositiva,** quedando el texto como sigue:

*"Hasita daude Donostiatik Irunerako zatiko lanak, burdinbide sarean hirugarren haria jartzekoak. Astigarraga eta Irun artean hirugarren burdinbidea ezartzeari esker, plataforma horretatik zabalera iberikoa duten trenak nahiz nazioarteko zabaleradunak igaro daitezke. Hala, Donostiatik abiatzen den burdinbide sareko zati bat Frantziako sareari lotuta egongo da.*

*Hori dena 2018an gertatuko da, euskal i grekoa deiturikoa osorik amaituta egon baino lehen; hala, Donostia Parisekin, Bordelerekin eta, batez ere, Iparraldearekin lotzeko tresnak ibiltzen ahal izateko moduan. Behi bistan daude Europarekiko loturan izandako aurrerapen honek Donostiari eta donostiar askori ekar liezazkiekeen abantailak.*

*Hori horrela, hauxe da EAJ udal taldeak aurkezturiko*

*MOZIOA*

*1.- Donostiako Udalbatzak hertsatuki*

*"Ya se están ejecutando las obras en el tramo Donostia Irun para colocar el tercer hilo en la red ferroviaria. Con la instalación de ese tercer raíl en el tramo entre Astigarraga e Irun será posible que circulen por esa plataforma tanto los trenes de ancho ibérico como los trenes de ancho internacional. De ese modo la red ferroviaria que parte de nuestra ciudad quedará unida a la red francesa.*

*Esto ocurrirá en 2018, antes de que el conjunto de la Y vasca se haya terminado, de tal manera que podrían comenzar a operar trenes que conectarían nuestra ciudad con Paris, Burdeos..., y, en particular, con Iparralde. Son evidentes las ventajas que este importante avance en la conexión con Europa supondría para la ciudad y para muchos donostiarras.*

*En vista de ello, el Grupo Municipal EAJ/PNV presenta la siguiente:*

*MOCIÓN*

*1º.- El Ayuntamiento Pleno de Donostia/San*

*eskatzen dio Sustapen Ministerioari aurreikusitako epeak betetzeko, Astigarraga eta Irun artean hirugarren haria jartzeko.*

*2.- Donostiako Udalbatzak* ***hertsatuki eskatzen die Eusko Jaurlaritzari eta Espainiako Gobernuari presaz bilarazteko erakunde arteko batzordea —Bilbon bezala—, zehatz-mehatz aztertu ahal izateko nola konpondu lastertasun handiko sarea Donostian txertatzearena.***

*3.-* ***Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen die Eusko Jaurlaritzari eta Espainiako Gobernuari hitzarmen bat sinatzeko, Loiolako Erriberetako aldageltokia diseinatu eta eraikitzekoa.***

*4.- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Sustapen Ministerioari beharrezko akordioak sinatzeko enpresa operatzaileekin,* ***azpiegiturak eta ekipamenduak eta beharrezko diren gainerako espezifikazioak amaitu ondoren, nazioarteko*** *tren zerbitzuak jarduten hasi ahal izateko,* ***egun ez bezala, sarea apurtu gabe”.***
**==================================**
**=**

*Sebastián insta al Ministerio de Fomento a que ejecute en los plazos previstos las obras para implantar el tercer hilo entre Astigarraga e Irun.*

*2.- El Ayuntamiento Pleno de Donostia/San Sebastián* ***insta al Gobierno Vasco y al Gobierno de España a reunir con carácter urgente la Comisión Interinstitucional para abordar -tal y como se ha hecho con Bilbao- de manera detallada la solución de la integración de la red de alta velocidad en Donostia-San Sebastián.***

*3.-* ***El Ayuntamiento Pleno de Donostia/San Sebastián insta al Gobierno Vasco y al Gobierno de España para suscribir un convenio para el diseño y construcción del intercambiador de Riberas de Loiola.***

*4.- El Ayuntamiento Pleno de Donostia/San Sebastián insta al Ministerio de Fomento a que impulse la formalización de los acuerdos y trámites necesarios entre los operadores para que una vez* ***concluidas las infraestructuras y los equipamientos y las especificaciones precisas*** *comiencen a operar los nuevos servicios* ***ferroviarios internacionales sin la actual ruptura de red”.***
**==============================**

Eta horrela jasota gera dadin eta dagozkion ondorioak izan ditzan, **Egiaztagiri** hau egin, izenpetu eta zigilatu dut, Alkatetzak aginduta eta onetsita, Donostian, bi mila eta hamabosteko martxoaren bederatzian.

Y para que así conste y surta los efectos procedentes, expido, firmo y sello esta **Certificación** , visada por la Alcaldía y de su orden en la ciudad de San Sebastián, a nueve de marzo de dos mil quince.

**ALKATEAK O. E. /**

**V. º B. º DEL ALCALDE,**

Juan Carlos Izagirre Hortelano

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

–-------------------------------

**III.1.19 Mozio arrunta, Gipuzkoako Fracking Ez Taldeak aurkeztua, apurketa hidraulikoari buruz**

Euskal Herrian hidrokarburoak bilatzeko saiakera anitz egon izan dira. Gure lurraldeak hidrokarburoak aurkitu izan diren beste batzuekin dituen antzekotasunak direla eta, petrolio-konpainientzat desiragarri bilakatu da Euskal Herria. Emaitza ezberdinak egon badira ere, urte askotan zehar egon diren hamarnaka saiakerek arrakasta eskasa izan dute.

Halere, gasa metodo berrien bidez bilatzeko munduan zehar dagoen bolada berri baten ondorioz, gure lurraldea lehentasunezko eremua bihurtu da berriro. Ezberdintasuna, kasu honetan, zulaketa horizontala eta etapa anitzen haustura hidraulikoaren arteko konbinazioan datza. Fracking bezala ezagutzen da teknika hau eta Ipar Ameriketan garatua izan da.

Eusko Jaurlaritzak sistema honen aldeko apustua egin du. Horren froga nabariena Sociedad de Hidrocarburos de Euskadi S.A. (SHESA), %100ean diru publikoarekin dabilen enpresa, gure lurraldean eman diren hidrokarburoen ikerketa baimenen bultzatzailea izan dela da. Ez da interesa duen enpresa bakarra, baina bai bere baimenekin lurralde eremu handiena hartzen duena

Egitasmo hau 2005ean hasi zen, hainbat

**III.1.19. Moción ordinaria presentada por el grupo Fracking Ez de Gipuzkoa sobre la fractura hidráulica**

En Euskal Herria ha habido numerosos intentos de buscar hidrocarburos. Debido a las similitudes que guarda nuestro territorio con otros en los que se han encontrado hidrocarburos, Euskal Herria se ha convertido en objeto de deseo para las compañías petrolíferas. Aunque los resultados hayan sido muy diversos, decenas de intentos realizados a lo largo de muchos años han cosechado escaso éxito.

Con todo, como consecuencia de la nueva oleada que recorre el mundo a lo largo y a lo ancho para obtener gas mediante nuevos métodos, nuestro territorio de nuevo se ha convertido en zona prioritaria. La diferencia, en este caso, estriba en la combinación entre la perforación horizontal y la fractura hidráulica en varias etapas. Esta técnica, conocida como fracking, se ha desarrollado en Norteamérica.

El Gobierno Vasco ha apostado por este método. La prueba más patente de ello es que la Sociedad de Hidrocarburos de Euskadi SA (SHESA), empresa que funciona con un 100 % de capital público, ha sido la impulsora de las licencias de prospección de hidrocarburos que se han concedido en nuestro territorio. No es la única empresa interesada, pero sí la que abarca un territorio más amplio con sus licencias.

Este proyecto comenzó en 2005, con la

baimenen eskaerarekin, horietako lehena 2006an eman zelarik. Enara deritzon baimena ezagunena bada ere, orain arte EAE-n emandako beste 11 baimen daude (Ebro A, E, D, Libra, Usoa, Enara, Mirua, Usapal, Urraca, Geminis eta Saia) eta eskatutako eta emateko tramitean dauden beste 6 (Pegaso, Lurra, Lore, Galileo, Sustraia, Landarre) ere. Baimen guzti hauek EAE-ren zati handi bat hartzen dute: Arabaren %88a, Bizkaiko %78a eta Gipuzkoako %40a inguru.

solicitud de una serie de licencias, la primera de las cuales fue concedida en 2006. Aunque la más conocida es la licencia denominada Enara, en abril de 2014 había 11 licencias concedidas (Ebro A, E y D, Libra, Usoa, Enara, Miura, Usapal, Urraca, Geminis y Saia) y otras 6 solicitadas en trámite de concesión (Pegaso, Lurra, Lore, Galileo, Sustraya y Landarre). Todas estas licencias abarcan una proporción muy amplia del territorio de la CAV: cerca del 88 % de Araba, del 78 % de Bizkaia y del 40 % de Gipuzkoa.

Orain arte teknika hauek erabili diren zonaldeetan hainbat arazo sortu dira, edateko uraren kutsadura, airearen kutsadura, mugimendu sismikoen agerpena, lurraren okupazio altua eta honen hondatzea edota putzuen inguruan bizi diren biztanleengan osasun arazoak kasu. Enpresa sustatzaileek kasurik hoberenetan, eragina jasan dutenei kalte-ordainak eman dizkiete, lege arau-hausteen aurrean isunak ordaindu dituzte edo zisterna bidez ur edangarria eramana dute ur eskuragarria kutsatu duten lurraldeetara.

En las zonas donde se han utilizado estas técnicas hasta ahora han aparecido varios problemas, como la contaminación del agua, episodios sísmicos, contaminación del aire, ocupación del suelo y problemas de salud en la población que vive en los alrededores de los pozos. En el mejor de los casos, las empresas promotoras han indemnizado a las personas que han sufrido las consecuencias, han abonado las sanciones correspondientes a las infracciones legales o han llevado agua potable mediante cisternas a los terrenos en los que han contaminado el agua disponible.

Hainbat dokumentuk bermatzen dituzte kezka hauek, osasunean eta ingurumenean fracking-aren ondorio latzak agerian jartzen dituzten ikerketa zientifikoetatik hasita, beraien eremuetan teknika hau debekatu dituzten lurralde eta estatuetaraino. Azken honen adibide aipagarri izan daiteke Frantziar estatua, bere lurraldean haustura hidraulikoa legez debekatu duena. Nabarmentzekoa da gaur egun, bere arriskuak direla medio, teknika honen inguruan sortu den eztabaida handia.

Muchos documentos apoyan estas preocupaciones, comenzado desde investigaciones científicas que demuestran las graves consecuencias del *fracking* en la salud y en el medio ambiente hasta territorios y estados que han prohibido esta técnica en sus ámbitos. Una muestra digna de mención de esto último puede ser el Estado francés, que ha prohibido por ley la fractura hidráulica en su territorio. Hay que destacar que en la actualidad, debido a los riesgos que acarrea, ha surgido un gran debate en torno a esta técnica.

Donostiako udalerrian oraindik baimenik ez

Aunque en el municipio de San Sebastián

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

dagoen arren, hauen eskaera bera ekiditea da mozio honen helburu nagusia, era berean eta Gipuzkoako hiriburua den heinean, fracking-ak eragiten dien udalerriekiko elkartasuna adieraziz. Baimenik gainean izan ez arren, "Fracking gabeko udalerri" izendatutakoen hainbat adibide daude Donostia inguruan, Usurbil, Pasaia, Hernani edo Astigarraga kasu.

todavía no haya licencias, el objeto principal de esta moción es evitar el que se puedan solicitar, y, al mismo tiempo, en la medida de que es la capital de Gipuzkoa, éste exprese su solidaridad a los municipios afectados por el *fracking*. Aunque no existan licencias, alrededor de San Sebastián existen numerosos ejemplos de localidades que han aprobado la denominación de "Municipio libre de *fracking*", por ejemplo, Usurbil, Pasajes, Hernani o Astigarraga.

Beraz, teknika hau sortzen ari den arazoen aurrean, eta berauek udalerri honetan agertzeko dagoen aukera aurreikusi eta eragozteko xedez, mozio honen helburu da udalerri honen mugen barruan teknika honen erabilera galaraztea.

Por tanto, ante los problemas que está originado esta técnica, y previendo que estos puedan aparecer en nuestro municipio, con objeto de imposibilitarlo, esta moción pretende que se impida el uso de esta técnica dentro de los límites de este municipio.

Honen guztiagatik, Donostiako Udalbatzari aurkezten diogu akordio proposamen hau eztabaidatua eta onartua izan dadin:

Por todo ello, proponemos al Ayuntamiento Pleno de San Sebastián que debata y apruebe la siguiente propuesta de acuerdo:

**1.- Donostiako Udalbatzak Donostiako udalerrian Hidrocarburos de Euskadi enpresa publikoak edo beste edozeinek eskatu ditzakeen ikerketa eta ustiaketa baimenak bertan behera uztea eskatzen du.**

**1.- El Ayuntamiento Pleno de San Sebastián insta a revocar las licencias de prospección y explotación que pueda solicitar en el término municipal de San Sebastián la empresa pública Hidrocarburos de Euskadi o cualquier otra.**

**2.- Donostiako Udalbatzak Donostiako Udal Gobernuari eskatzen dio fracking-aren aurkako jarrera aktiboa har dezala, Donostia "Fracking gabeko Udalerri" izendatuz eta hori adierazten duen seinalea udalerriaren sarreran jarriz.**

**2.- El Ayuntamiento Pleno de San Sebastián insta al Gobierno municipal a que mantenga una postura activa contra la fractura hidráulica, y a nombrar San Sebastián "Municipio libre de *fracking*", y a colocar en la entrada del municipio señales que expresen ese hecho.**

**3.- Fracking-ak dituen ondorio lazgarriak herritarrei jakinaraztea.**

**3.- Poner en conocimiento de la ciudadanía las graves consecuencias del *fracking*.**

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

Donostian 2014ko urtarrilaren 29an

SIN.: Josu Ruiz Martin
BILDU Udal Taldearen Bozeramailea

En San Sebastián, a 29 de enero de 2014

Firmado: Josu Ruiz Martin,
portavoz del grupo municipal Bildu.

Eztabaida hasita, Axier Jaka Goikoetxea jaunak, Martin Ibabe Eceiza jaunak, Vicente Garcia Momblona jaunak eta Ernesto Gasco Gonzalo jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto las/los señoras/es D. Axier Jaka Goikoetxea, D. Martin Ibabe Eceiza, D. Vicente García Momblona y D. Ernesto Gasco Gonzalo en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

**- PSE/EE TALDEAK 19. GAIARI AURKEZTUTAKO 1. ZUZENKETAREN BOZKETA / VOTACIÓN DE LA ENMIENDA Nº 1 PRESENTADA POR EL GRUPO PSE/EE AL ASUNTO Nº 19**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK:18-(6) PSE-EE,(6)PP,(6) EAJ/PNV**
**AURKAKO BOTOAK: 8-BILDU**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 18-(6) PSE-EE,(6)PP, (6) EAJ/PNV**
**VOTOS EN CONTRA: 8-BILDU**

**- PSE/EE TALDEAK 19. GAIARI AURKEZTUTAKO 2. ZUZENKETAREN BOZKETA / VOTACIÓN DE LA ENMIENDA Nº 2 PRESENTADA POR EL GRUPO PSE/EE AL ASUNTO Nº 19**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK:18-(6) PSE-EE,(6)PP,(6) EAJ/PNV**
**AURKAKO BOTOAK: 8-BILDU**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 18-(6) PSE-EE,(6)PP, (6) EAJ/PNV**
**VOTOS EN CONTRA: 8-BILDU**

**- 19. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO Nº 19**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK:18-(6) PSE-EE,(6)PP,(6) EAJ/PNV**
**AURKAKO BOTOAK: 8-BILDU**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 18-(6) PSE-EE,(6)PP, (6) EAJ/PNV**
**VOTOS EN CONTRA: 8-BILDU**

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

**HARTUTAKO ERABAKIAREN BEHIN BETIKO TESTUAREN EGIAZTAGIRIA:**

Donostiako Udalbatzak, bi mila eta hamabosteko martxoaren hiruan egin zuen Ohiko Bilkuran, **BILDU taldeak Gipuzkoako Fracking ez taldeak proposatutako eta aurkeztutako Ohiko Mozio hau** onartu zuela, **PSE-EE taldeak** aurkeztutako eta Udalbatzak onartutako **zuzenketekin, mozioaren ebazpen zatiaren 1.go puntua kenduaz eta 2. eta 3. puntuen ordez beste testu bat jarriaz .** Testua honela idatzita geratu da:

*"Euskal Herrian hidrokarburoak bilatzeko saiakera anitz egon izan dira. Gure lurraldeak hidrokarburoak aurkitu izan diren beste batzuekin dituen antzekotasunak direla eta, petrolio-konpainientzat desiragarri bilakatu da Euskal Herria. Emaitza ezberdinak egon badira ere, urte askotan zehar egon diren hamarnaka saiakerek arrakasta eskasa izan dute.*

*Halere, gasa metodo berrien bidez bilatzeko munduan zehar dagoen bolada berri baten ondorioz, gure lurraldea lehentasunezko eremua bihurtu da berriro. Ezberdintasuna, kasu honetan, zulaketa horizontala eta etapa anitzen haustura hidraulikoaren arteko konbinazioan datza. Fracking bezala ezagutzen da teknika hau eta Ipar Ameriketan garatua izan da.*

*Eusko Jaurlaritzak sistema honen aldeko apustua egin du. Horren froga nabariena Sociedad de Hidrocarburos de Euskadi S.A. (SHESA), %100ean diru publikoarekin dabilen enpresa, gure lurraldean eman diren*

**CERTIFICADO DEL TEXTO DEFINITIVO DEL ACUERDO ADOPTADO :**

Que el Excelentísimo Ayuntamiento Pleno en Sesión Ordinaria celebrada el día tres de marzo de dos mil quince, aprobó la siguiente **Moción Ordinaria presentada por el Grupo BILDU a propuesta del Grupo Guipuzcoano Fracking Ez, que incorpora las enmiendas** aprobadas, presentadas por el **Grupo PSE-EE, de supresión del 1.er punto y de sustitución del 2º y 3.er puntos de la parte dispositiva por uno nuevo,** quedando el texto como sigue:

*"En Euskal Herria ha habido numerosos intentos de buscar hidrocarburos. Debido a las similitudes que guarda nuestro territorio con otros en los que se han encontrado hidrocarburos, Euskal Herria se ha convertido en objeto de deseo para las compañías petrolíferas. Aunque los resultados hayan sido muy diversos, decenas de intentos realizados a lo largo de muchos años han cosechado escaso éxito.*

*Con todo, como consecuencia de la nueva oleada que recorre el mundo a lo largo y a lo ancho para obtener gas mediante nuevos métodos, nuestro territorio de nuevo se ha convertido en zona prioritaria. La diferencia, en este caso, estriba en la combinación entre la perforación horizontal y la fractura hidráulica en varias etapas. Esta técnica, conocida como fracking, se ha desarrollado en Norteamérica.*

*El Gobierno Vasco ha apostado por este método. La prueba más patente de ello es que la Sociedad de Hidrocarburos de Euskadi SA (SHESA), empresa que funciona con un 100 % de capital público, ha*

*hidrokarburoen ikerketa baimenen bultzatzailea izan dela da. Ez da interesa duen enpresa bakarra, baina bai bere baimenekin lurralde eremu handiena hartzen duena.*

*sido la impulsora de las licencias de prospección de hidrocarburos que se han concedido en nuestro territorio. No es la única empresa interesada, pero sí la que abarca un territorio más amplio con sus licencias.*

*Egitasmo hau 2005ean hasi zen, hainbat baimenen eskaerarekin, horietako lehena 2006an eman zelarik. Enara deritzon baimena ezagunena bada ere, orain arte EAE-n emandako beste 11 baimen daude (Ebro A, E, D, Libra, Usoa, Enara, Mirua, Usapal, Urraca, Geminis eta Saia) eta eskatutako eta emateko tramitean dauden beste 6 (Pegaso, Lurra, Lore, Galileo, Sustraia, Landarre) ere. Baimen guzti hauek EAE-ren zati handi bat hartzen dute: Arabaren %88a, Bizkaiko %78a eta Gipuzkoako %40a inguru.*

*Este proyecto comenzó en 2005, con la solicitud de una serie de licencias, la primera de las cuales fue concedida en 2006. Aunque la más conocida es la licencia denominada Enara, en abril de 2014 había 11 licencias concedidas (Ebro A, E y D, Libra, Usoa, Enara, Miura, Usapal, Urraca, Geminis y Saia) y otras 6 solicitadas en trámite de concesión (Pegaso, Lurra, Lore, Galileo, Sustraya y Landarre). Todas estas licencias abarcan una proporción muy amplia del territorio de la CAV: cerca del 88 % de Araba, del 78 % de Bizkaia y del 40 % de Gipuzkoa.*

*Orain arte teknika hauek erabili diren zonaldeetan hainbat arazo sortu dira, edateko uraren kutsadura, airearen kutsadura, mugimendu sismikoen agerpena, lurraren okupazio altua eta honen hondatzea edota putzuen inguruan bizi diren biztanleengan osasun arazoak kasu. Enpresa sustatzaileek kasurik hoberenetan, eragina jasan dutenei kalte-ordainak eman dizkiete, lege arau-hausteen aurrean isunak ordaindu dituzte edo zisterna bidez ur edangarria eramana dute ur eskuragarria kutsatu duten lurraldeetara.*

*En las zonas donde se han utilizado estas técnicas hasta ahora han aparecido varios problemas, como la contaminación del agua, episodios sísmicos, contaminación del aire, ocupación del suelo y problemas de salud en la población que vive en los alrededores de los pozos. En el mejor de los casos, las empresas promotoras han indemnizado a las personas que han sufrido las consecuencias, han abonado las sanciones correspondientes a las infracciones legales o han llevado agua potable mediante cisternas a los terrenos en los que han contaminado el agua disponible.*

*Hainbat dokumentuk bermatzen dituzte kezka hauek, osasunean eta ingurumenean fracking-aren ondorio latzak agerian jartzen dituzten ikerketa zientifikoetatik hasita, beraien eremuetan teknika hau debekatu dituzten lurralde eta estatuetaraino. Azken honen adibide aipagarri izan daiteke Frantziar estatua, bere lurraldean haustura hidraulikoa legez debekatu duena. Nabarmentzekoa da gaur egun, bere arriskuak direla medio, teknika honen inguruan sortu den eztabaida handia.*

*Muchos documentos apoyan estas preocupaciones, comenzado desde investigaciones científicas que demuestran las graves consecuencias del fracking en la salud y en el medio ambiente hasta territorios y estados que han prohibido esta técnica en sus ámbitos. Una muestra digna de mención de esto último puede ser el Estado francés, que ha prohibido por ley la fractura hidráulica en su territorio. Hay que destacar que en la actualidad, debido a los riesgos que acarrea, ha surgido un gran debate en torno a esta técnica.*

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

*Donostiako udalerrian oraindik baimenik ez dagoen arren, hauen eskaera bera ekiditea da mozio honen helburu nagusia, era berean eta Gipuzkoako hiriburua den heinean, fracking-ak eragiten dien udalerriekiko elkartasuna adieraziz. Baimenik gainean izan ez arren, "Fracking gabeko udalerri" izendatutakoen hainbat adibide daude Donostia inguruan, Usurbil, Pasaia, Hernani edo Astigarraga kasu.*

*Aunque en el municipio de San Sebastián todavía no haya licencias, el objeto principal de esta moción es evitar el que se puedan solicitar, y, al mismo tiempo, en la medida de que es la capital de Gipuzkoa, éste exprese su solidaridad a los municipios afectados por el fracking. Aunque no existan licencias, alrededor de San Sebastián existen numerosos ejemplos de localidades que han aprobado la denominación de "Municipio libre de fracking", por ejemplo, Usurbil, Pasajes, Hernani o Astigarraga.*

*Beraz, teknika hau sortzen ari den arazoen aurrean, eta berauek udalerri honetan agertzeko dagoen aukera aurreikusi eta eragozteko xedez, mozio honen helburu da udalerri honen mugen barruan teknika honen erabilera galaraztea.*

*Por tanto, ante los problemas que está originado esta técnica, y previendo que estos puedan aparecer en nuestro municipio, con objeto de imposibilitarlo, esta moción pretende que se impida el uso de esta técnica dentro de los límites de este municipio.*

*Honen guztiagatik, Donostiako Udalbatzari aurkezten diogu akordio proposamen hau eztabaidatua eta onartua izan dadin:*

*Por todo ello, proponemos al Ayuntamiento Pleno de San Sebastián que debata y apruebe la siguiente propuesta de acuerdo:*

***Donostiako Udalak erabaki du inoiz fracking-aren edo beste edozein teknikariren bidez lurpean prospekzioak egiteko eta lur azpia ustiatzeko lizentziarik eskatzen badute erakunde eskudun guztiek errespetatu beharko dutela Udalbatzak hartzen duen erabakia".***
**===================================**

***El Ayuntamiento Pleno de Donostia/San Sebastián acuerda que en el caso de que algún día hubiera alguna petición de licencia de prospección y explotación del subsuelo con la técnica de fracking o con cualquier otra, que se respete por las instituciones competentes la decisión que adopte el Pleno Municipal".***
**=============================**

Eta horrela jasota gera dadin eta dagozkion ondorioak izan ditzan, **Egiaztagiri** hau egin, izenpetu eta zigilatu dut, Alkatetzak aginduta eta onetsita, Donostian, bi mila eta hamabosteko martxoaren bederatzian.

Y para que así conste y surta los efectos procedentes, expido, firmo y sello esta **Certificación** , visada por la Alcaldía y de su orden en la ciudad de San Sebastián, a nueve de marzo de dos mil quince.

**ALKATEAK O. E. /**

**V. º B. º DEL ALCALDE,**

Juan Carlos Izagirre Hortelano

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

-------------------------------

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

## III.2

## KONTROL MOZIOAK

### III.2.1 PSE-EE eta PP Taldeak aurkeztutako Mozio bateratua Muntoko parkea berriz urbanizatzea dela eta.

Talde Popularreko zinegotzi Jose Luis Arruek eta Talde Sozialistaren bozeramaile Ernesto Gascok, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikuluak ematen dien babesa aintzakotzat hartu eta KONTROL MOZIO hau aurkeztu nahi die Udalbatzari, Gune Publikoen Batzordeak (Obrak eta Zerbitzuak) urtarrilaren 15ean eta otsailaren 16an izan zituen bileretan Muntoko parkea berriz urbanizatzearen gainean egindako interpelazioen ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

2014an egindako parte-hartze prozesu baten ondoren, akordio bat lortu zen auzotarrekin, Munto baserriak hartzen zuen esparrua berrurbanizatzeko proiektu bat egiteko asmoz.

Proiektuak proposatzen zuen eraikin zaharraren zati bati eustea, eta parke eder bat eta agertoki bat ere kokatzen zituen esparru horretan.

Nolanahi ere, 2014. urtea amaitu da eta oraindik ez zaio ekin lan horri, eta ez dirudi, ezta ere, zuek deitzen duzuen “partaidetzako aurrekontu"ei lotuta, auzoetara eramango duzuen proiektu hau.

Batzordean adierazi ziguten urtarrilaren

## III.2

## MOCIONES DE CONTROL

### III.2.1. Moción de control conjunta presentada por el Grupo PSE-EE y PP sobre el proyecto de reurbanización parque Munto.

D. Jose Luis Arrue, concejal del Grupo Popular, y D. Ernesto Gasco, portavoz del Grupo Socialista, al amparo del vigente artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta para su tratamiento en Pleno la siguiente MOCION DE CONTROL a consecuencia de la Interpelaciones substanciadas ante la Comisión de Espacio Publico, Obras y Servicios Urbanos, celebradas el 15 de Enero, y el 16 de Febrero, sobre el proyecto de reurbanización parque Munto.

JUSTIFICACIÓN

Tras un proceso participativo celebrado en el 2014 se alcanzó un acuerdo con los vecinos para llevar a cabo un proyecto para la reurbanización del espacio que ocupaba el Caserío de Munto.

Dicho proyecto mantenía parte del antiguo edificio, dotaba de un bonito parque y de un escenario al espacio.

Sin embargo, dicha actuación transcurrido el año 2014 no se ha iniciado y tampoco aparece entre las que van a trasladar a los barrios de los que ustedes denominan “presupuestos participativos”.

En comisión se nos indicó que a

azkenean onartuko zuela Gobernu Batzarrak proiektua eskatzea eta otsailean aterako zela proiektua lehiaketara, egin beharreko izapideak egin eta gero. Otsailaren 16an egindako batzordean, ordea, onartu zuten artean lehiaketara atera gabe zela proiektua, eta laster egitea espero zutela.

finales de Enero la Junta de Gobierno aprobaría la realización del proyecto y que tras los trámites correspondientes en Febrero se sacaría a concurso la licitación. En la última comisión celebrada el día 16 reconoció que no se había sacado aún a concurso y que esperaban poder hacerlo en breve.

Kontuan izanik proiektu horrek zenbateko garrantzia duen Aieteko bizilagunentzat —diseinatzen ere gogoz parte hartu zuten eta legealdia bukatzerako berrurbanizatuta izango zela agindu zieten—, hauxe da Talde Popularrak dakarren **KONTROL MOZIOA:**

Siendo conscientes de la importancia que tiene este proyecto para los vecinos de Aiete que además han participado activamente en su diseño y que tienen la promesa de contar con esta reurbanización antes del fin de esta legislatura, es por lo que el Grupo Popular, realiza la siguiente **MOCIÓN DE CONTROL:**

Donostiako Udalbatzak Gobernu Taldeari eskatzen dio ahalik eta azkarren ateratzeko lehiaketara proiektu hau, legealdi hau bukatu baino lehen hasteko Muntoko plaza berriko lanak.

El Ayuntamiento Pleno de San Sebastián insta al Equipo de Gobierno a que saque a concurso la licitación de este proyecto a la mayor brevedad de forma que se inicien los trabajos de la nueva plaza de Munto antes de finalizar la presente legislatura.

Donostian, 2015eko otsailaren 20an.

En San Sebastián, a 20 de Febrero de 2015

Jose Luis Arrue Pintó

Concejal del Grupo Popular”

Ernesto Gasco

Portavoz del Grupo PSE-EE.”

Jose Luis Arrue Pintó

Concejal del Grupo Popular”

Ernesto Gasco

Portavoz del Grupo PSE-EE.”

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

Eztabaida hasita, Jose Luis Arrue Pinto jaunak, Enrique Ramos Vispo jaunak, Aitziber San Roman Abete andreak eta Nora Galparsoro Larraza andreak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto la/los señora/es, D.Jose Luis Arrue Pinto, D. Enrique Ramos Vispo, Dª Aitziber San Roman Abete y Dª. Nora Galparsoro Larraza, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

—--------------------------

**ATSEDENALDIA**

**14:15ETAN, ATSEDENALDIA EGITEN DA ETA BERRIRO ERE EKITEN ZAIO SAIOARI, 15:45AK DIRENEAN.**

**RECESO**

**SIENDO LAS 14:15, SE REALIZA UN RECESO Y SE REANUDA LA SESIÓN, CUANDO SON LAS 15:45H.**

—-------------------------

**III.2.2 PP Taldeak aurkeztutako Mozioa haurren parkeak tapatzea dela eta**

**III.2.2. Moción presentada por el Grupo PP sobre el cubrimiento de parques infantiles.**

Talde Popularreko zinegotzi Iñigo Arcauzek, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikuluak ematen dion babesa aintzakotzat hartu eta KONTROL MOZIO hau aurkeztu nahi dio Udalbatzari, Gune Publikoetako Batzordeak (Obrak eta Zerbitzuak) otsailaren 16an izan zuen bileran haurren parkeak tapatzea dela eta egindako interpelazioaren ondorioz.

D. Iñigo Arcauz, concejal del Grupo Popular, al amparo del vigente artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta para su tratamiento en Pleno la siguiente MOCION DE CONTROL a consecuencia de la Interpelación substanciada ante la Comisión de Espacio Publico, Obras y Servicios Urbanos, celebrada el 16 de Febrero, sobre cubrimiento de parques infantiles.

JUSTIFIKAZIOA

Gure hirian, haur parke ugari dago. Eta gure hiriko haurrek asko erabiltzen dituzte. Egun askotan, ordea, eguraldia dela eta, ezin erabili gelditzen dira, eta haurrek beste aukera bat bilatu behar izaten dute. Talde Popularrak uste du parke horietako batzuk estaltzeko aukera badagoela, haurrek urteko egun guztietan jolasteko toki bat izateko, eguraldia gorabehera.

JUSTIFICACIÓN

Existen en nuestra ciudad numerosos parques infantiles. Parques muy utilizados por los niños de nuestra ciudad. El problema meteorológico imposibilita su utilización durante muchos días, lo que obliga a los niños a buscar otras alternativas. Desde el Grupo Popular creemos que es posible el cubrimiento de algunos de estos parques, permitiendo a los niños disfrutar de un espacio de juegos todos los días del año, independientemente del aspecto meteorológico.

2013ko otsailean gai honen inguruko interpelazio bat egin eta mozio bat aurkeztu zion gure udal taldeak Udal Gobernuari. Gobernuak erantzun zigun begiratuko zutela gure hirian diren parkeetako batzuk tapatzeko aukerarik

En Febrero de 2013 nuestro Grupo Municipal realizó una interpelación y una moción al Gobierno Municipal sobre esta materia. La respuesta del Gobierno fue que estudiarían la posibilidad de analizar los parques

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

zen.

existentes en nuestra ciudad con el objetivo de ver las posibilidades de cubrimiento de algunos de ellos.

Legealdiaren azken txanpara iritsi gara, ordea, eta esan dugun ekimen hura eginda ere denbora asko joan den arren, Gobernu Taldeak Arrobitxuloko gune bat tapatzeko proiektua besterik ez du. Edozeinek ikusten du geroz eta behar handiagoa dagoela toki estali batzuk izateko umeak jolasean ibiltzeko, eta oraindik eta gehiago azkeneko hilabete hauetan izan dugun eguraldiarekin.

Estando en la recta final de la legislatura, y pasado ya tiempo desde aquella iniciativa, el Equipo de Gobierno sólo a proyectado un cubrimiento en la zona nueva de Arrobitxulo. A la vista de todos está la necesidad cada vez mayor de tener zonas cubiertas para el disfrute de los niños tras la climatología registrada en nuestra ciudad en los últimos meses.

Hala, zinegotzi ordezkariak erantzun ona eman zigula kontuan izanik, bideragarritasun azterketa egin eta hiriaren erdialdeko parkeren bat estaltzeko aukeraren bat izan zitekeela esan baitzuen, hauxe da PP taldearen **KONTROL MOZIOA:**

Desde nuestro Grupo, teniendo en cuenta la respuesta positiva dada por la Delegada del área, reconociendo la posibilidad de realizar algún cubrimiento, en la zona centro de nuestra ciudad, previa realización de un estudio de viabilidad, es por lo que el Grupo Popular presenta la siguiente **MOCIÓN DE CONTROL:**

Donostiako Udalbatzak Gobernu Taldeari eskatzen dio hiriaren erdialdeko parkeren bat tapatzeko proiektu bat egin eta aurkezteko udal taldeei legealdi hau bukatu baino lehen.

El Ayuntamiento Pleno de San Sebastián insta al Equipo de Gobierno a realizar y presentar a los Grupos Municipales, antes de terminar la presente legislatura, un proyecto de cubrimiento de algún parque infantil en la zona centro de nuestra ciudad.

Donostian, 2015eko otsailaren 20an

En San Sebastián, a 20 de Febrero de 2015

Iñigo Arcauz Ascargorta,

PP taldeko zinegotzia."

Iñigo Arcauz Ascargorta.

Concejal del Grupo Popular."

Eztabaida hasita, Iñigo Arcauz Ascargorta jaunak, Iñaki Gurrutxaga Armendariz jaunak, Ernesto Gasco Gonzalo jaunak eta Nora Galparsoro Larraza andreak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto la/los señora/es, D.Iñigo Arcauz Ascargorta, D. Iñaki Gurrutxaga Armendariz, D. Ernesto Gasco Gonzalo y Dª. Nora Galparsoro Larraza, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**GEHIENGOA.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**MAYORÍA.**

**ALDEKO BOTOAK: 19 - (7) PSE-EE, (6) PP, (6) EAJ/PNV.**
**ABSTENTZIOAK: 8 – BILDU.**

**VOTOS A FAVOR: 19 - (7) PSE-EE, (6) PP, (6) EAJ/PNV.**
**ABSTENCIONES: 8 – BILDU.**

-----------------------

**III.2.3-PP Taldeak aurkeztutako mozioa Atotxako autobus geltokian taxi geralekua egiteko proposamena dela eta.**

**III-2.3 Moción presentada por el Grupo PP sobre la la propuesta de la nueva parada de taxis en la estación de autobuses de Atotxa.**

Talde Popularreko zinegotzi Iñigo Arcauzek, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikuluak ematen dion babesa aintzakotzat hartu eta KONTROL MOZIO hau aurkeztu nahi dio Udalbatzari, Gune Publikoen Batzordeak (Obrak eta Zerbitzuak) otsailaren 16an izan zuen bileran Atotxako autobus geltokian taxi geralekua egiteko proposamenaren gainean egindako interpelazioaren ondorioz.

D. Iñigo Arcauz, concejal del Grupo Popular, al amparo del vigente artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta para su tratamiento en Pleno la siguiente MOCION DE CONTROL a consecuencia de la Interpelación substanciada ante la Comisión de Espacio Publico, Obras y Servicios Urbanos, celebrada el 16 de Febrero, sobre la propuesta de nueva parada de taxis en la estación de autobuses de Atotxa.

JUSTIFIKAZIOA

JUSTIFICACIÓN

Joan den urtearen amaieran jakin genuen taxilarien elkarteak kezkatuta daudela Atotxako autobus geltoki berrian izango dituzten geltokiak direla eta. Izan ere, proiektuan ez da zehazten taxientzako zenbat leku izango den, eta proiektua, jadanik, nahiko aurreratua dago. Gauzak zehaztuta ez egote horrek talde asko kezkatzen ditu, eta, horren ondorioz, azaroan interpelazio bat eta mozio bat aurkeztu genizkion udal gobernuari. Gobernuak erantzun ez zuenez eta ordutik hilabete batzuk igaro direnez, taxilarien elkarteek proposamen bat aurkeztu diote Udalari. Proposamen horretan, herritarrei zerbitzu on bat emateko eta orain arte izan diren mugikortasun arazoak konpontzeko gutxienez zer baldintza bete behar diren zehazten da.

A finales del año pasado conocimos la preocupación de las asociaciones del taxi en relación a sus paradas en la nueva estación de autobuses de Atotxa. Una preocupación basada en la falta de concreción del numero de plazas disponibles para los taxis en el proyecto, proyecto que por cierto, ya se encuentra en fase avanzada de ejecución. Una indefinición, que preocupa mucho a dichos colectivos y que motivó una interpelación y una moción al Gobierno Municipal en el pasado mes de Noviembre. Ante la falta de respuesta del Gobierno, y tras pasar varios meses, las asociaciones del taxi han presentado una propuesta propia en el Ayuntamiento. Propuesta en la que se recogen las condiciones mínimas necesarias para ofrecer un buen servicio a la ciudadanía y solucionar los problemas de movilidad planteados hasta la fecha.

Zehaztasun falta hori ikusirik, gure taldeak interpelazio bat egin zion Jon Albizu zinegotziari

Desde nuestro Grupo, ante esta falta de concreción, presentamos una interpelación al

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

Gune Publikoen Batzordeak orain hurrena izan zuen bileran. Eta erantzun ziguten aldaketa batzuk egin behar dizkiola Udal Gobernuak geltoki proiektuari, taxizaleen elkarteek egindako proposamen batzuk onartzeko bidea izateko. Hala, alokatzeko kotxeak aparkatzeko tokia den horretan taxiak ibiltzeko errei bat egiteko aukera izango da. Gure taldeari oso konponbide ona eta egokia iruditzen zaio hori, taxientzako gordetako toki gehiago izango dira eta. Hala ere, bada beste proposamen bat, taxizaleek egin dutena baina Gobernuak onartu ez duena: biragune bat egitea Maria Kristina zubitik aurrera etorritako taxiek Renferen geltokiaren aurrean izango den errei berri horretara jo ahal izateko.

Señor Albizu sobre esta materia en la pasada Comisión de Espacio Público. En respuesta a la misma, se nos comunicó que el Gobierno Municipal va a introducir cambios en el proyecto de estación para admitir en parte las propuestas de las asociaciones del taxi. Se admite la posibilidad de crear un carril de circulación para los taxis en la zona donde en la actualidad se encuentra el aparcamiento de los vehículos de alquiler. Una solución que desde nuestro grupo la vemos muy acertada y positiva por aumentar el numero de plazas de reserva para los taxistas. Sin embargo, hay otra propuesta realizada por los taxistas que no ha sido admitida por el Gobierno, nos referimos a la posibilidad de habilitar un giro para que los taxistas que circulan desde el puente de María Cristina puedan acceder al carril nuevo que se va a habilitar para los taxistas frente a la estación de Renfe.

Biragune hori izatea oso inportantea litzateke taxizaleentzat nahiz erabiltzaileentzat, denbora eta kostua aurreztea ere ekarriko lieke eta. Hori dela eta, hauxe da Talde Popularrak dakarren **KONTROL MOZIOA:**

Siendo conscientes de la importancia que tendría para los taxistas y usuarios esta posibilidad de giro, junto con el ahorro de costes y tiempo que la puesta en marcha de la misma supondría para ellos, es por lo que el Grupo Popular, realiza la siguiente **MOCIÓN DE CONTROL:**

Donostiako Udalbatzak Gobernu Taldeari eskatzen dio taxizaleen elkarteek proposatutako biragunearena ere sartzeko Atotxako autobus geltokiaren proiektuan, Maria Kristina zubitik aurrera etorritako taxiek Renferen geltokiaren aurrean haientzat gordeta izango den errei berri horretara jotzeko modua izan dezaten.

El Ayuntamiento Pleno de San Sebastián insta al Equipo de Gobierno a incluir en el proyecto de Estación de Autobuses de Atotxa la posibilidad de giro propuesta por las asociaciones del sector, para que los taxistas puedan acceder desde el puente de María Cristina al nuevo carril de reserva para taxis que se va a habilitar frente a la actual estación de Renfe.

Donostian, 2015eko otsailaren 20an.

En San Sebastián, a 20 de Febrero de 2015

Iñigo Arcauz Ascargorta,

PP taldeko zinegotzia

Iñigo Arcauz Ascargorta

Concejal del Grupo Popular.”

Eztabaida hasita, Iñigo Arcauz Ascargorta jaunak, Martin Ibabe Ezeiza jaunak, Ernesto Gasco Gonzalo jaunak eta Jon Albizu Agirrezabalaga jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto las/los señoras/es, D. Iñigo Arcauz Ascargorta, D. Martin Ibabe Eceiza, D. Ernesto Gasco Gonzalo y D. Jon Albizu Agirrezabalaga en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 13 - (7) PSE-EE, (6) PP.**
**AURKAKO BOTOAK:8-BILDU**
**ABSTENTZIOAK: 6 - EAJ/PNV**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 13 - (7) PSE-EE, (6) PP.**
**VOTOS EN CONTRA: 8-BILDU**
**ABSTENCIONES: 6 - EAJ/PNV**

—-------------------------------

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

**III.2.4- PSE-EE Taldeak aurkeztutako kontrolezko mozioa Arte Ederren antzokia izandako eraikinaren egoera dela eta**

PSE-EE taldearen bozeramaile Ernesto Gasco Gonzalok, indarrean den Udalbatzaren Organo Araudiak ematen dion babesa aintzakotzat hartu eta **KONTROL MOZIO** hau aurkeztu nahi dio Udalbatzari, Lurraldearen Garapen eta Planifikazio Batzordeak 2015eko otsailaren 16an izan zuen bileran **ARTE EDERREN ANTZOKIA IZANDAKO ERAIKINAREN EGOERA DELA ETA** egindako interpelazioaren ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

Beste fitxa eta aldaketa askoaren artean Arte Ederren antzokiarena zekarren Hirigintza ondare katalogatua babesteko plan berezia udalbatzan onartu eta gero ez dugu ezer ere jakin haren gainean, nahiz eta plan hura onartu aurretik eta geroago ere fitxa hura izan zen protagonista. Hori dela eta, interpelazio bat egin genion Hirigintzako Batzordean zinegotzi eskuordedunari, eta esan zigun ez zela ezeren aurrerapenik izan, Eusko Jaurlaritzak eraikina babestearen gaineko espedientea bukatu zain zeudela eta zela beste berritasunik.

Gure udal taldeak uste du, ordea, inolaz ere ez

**III.2.4 - Moción de control que presenta el Grupo PSE-EE con relación a la situación del edificio del Teatro Bellas Artes en la C/Urbieta.**

Ernesto Gasco Gonzalo, Portavoz del Grupo PSE-EE, al amparo del vigente ROP, presenta, para su tratamiento en Pleno Municipal, la siguiente **MOCIÓN DE CONTROL** como consecuencia de la Interpelación realizada ante la Comisión de Desarrollo y Planificación del Territorio en la sesión que celebró el pasado día 16 de Febrero de 2015, con relación a la **SITUACIÓN DEL EDIFICIO DEL TEATRO BELLAS ARTES** en la c/Urbieta

JUSTIFICACIÓN

